2025EKO UZTAILAREN 1EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hamasei minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten den gai zerrendarekin ohiko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2025EKO EKAINAREN 10EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURARENA).

2.- FAKTURA ZERRENDEN BERRI EMATEA.

3.- GOIEKIRI EKARPEN BEREZIA EGITEA, HALA BADAGOKIO.

4.- TOBERA MUSIKA ESKOLARI 2024KO EKARPEN EKONOMIKOA EGITEA, HALA BADAGOKIO.

5.- KONTRATAZIO ZENTRALETIK IGOGAILUEN KONTRATAZIOA BIDERATZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

6.- 2024KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

7.- 2/2025 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

8.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

9.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Iker Zubeldia Katarain jn. (EH Bildu).

ZINEGOTZIAK

Ainhoa Herrasti Areitio and. (EH Bildu).
Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).
Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen).
Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).
Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).
Nagore Arrieta Aranza and. (EH Bildu).
Alina Dumitru and. (Zegama Lantzen).

EZ ETORRITAKOAK

Denis Pérez Apaolaza jn. (EH Bildu).

SINA9103af19-2260-4052-a9d8-3eb0421989bd

Idazkaria, Eztizen Agirresarobe Pineda.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2025EKO EKAINAREN 10EAN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURARENA).

Alkateak, 2025eko ekainaren 10eko bilkuraren aktako zirriborroko izenburuko akatsa zuzentzea proposatzen du, urtearen zenbakia ondo jarriz. Jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzarkideei. Ez dago oharpenik.

Aho batez onartutzat ematen da.

2.- FAKTURA ZERRENDEN BERRI EMATEA.

Alkatetza Ebazpen bidez onartutako honako faktura-zerrenden berri ematen da (2025eko uztailaren 1eko Ogasun Batzordean aztertu eta oniritzia jasotakoak), dagokion gastua onartuz eta ordainketa egitea bideratuz.

- 2025eko 8 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina); guztira 156.370,85 euro.
- 2025eko 9 zenbakidun fakturen erlazioa (ekaina-2); guztira 99.939,03 euro.

3.- GOIEKIRI EKARPEN BEREZIA EGITEA, HALA BADAGOKIO.

Goiekiri 7.978,58€ko ekarpen berezia egitea dagokiola ikusirik, bilkurakideek aho batez ordainketa egitea onartzen dute.

4.- TOBERA MUSIKA ESKOLARI 2024KO EKARPEN EKONOMIKOA EGITEA, HALA BADAGOKIO.

Alkateak adierazten du Tobera Musika Eskolatik, 2024ko txistu kitapenerako dokumentua aurkeztu dela.

Adierazitako agirian jasotako argibideak eta zenbatekoak ikusirik.

Horrenbestez, aurkeztutako agiriak aztertu eta eztabaidatu ondoren eta 2025eko uztailaren 1eko Ogasun Batzordean aldeko iritzia jaso ondoren, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Tobera Musika Eskolari, 2024ko kitapenari dagokionez, 4.708,04 euroko ekarpena bideatzea onartzea.

5.- KONTRATAZIO ZENTRALETIK IGOGAILUEN KONTRATAZIOA BIDERATZEA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Jasogailuen mantentze-lanen zerbitzua kontratatzeko Kontratazio Zentralak martxan daukan espedientea ikusita eta Udal honek hornidura hori behar duen heinean,

SINA9103af19-2260-4052-a9d8-3eb0421989bd

Udalbatzarrak, aho batez, honakoa

ERABAKITZEN DU

1. *Onartzea esparru akordioaren Kontratazio espedienteari atxikitzeko prozedura (jasogailuen mantentze-lanen zerbitzua), Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralak ireki duena.*
2. *Konpromisoa HARTZEA enpresa esleipendun enpresarekin kontratu eratorria esleitzeko, Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.*
3. *BAIMENA EMATEA alkateari udal honi dagokion kontratu eratorria esleitzeko.*

6.- 2024KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

Espedientea ikusirik.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2004 Foru Arauaren 63. atalean ezarritakoaren arabera, Udaleko 2024ko Kontu Orokor hauek jendaurrera jarri ziren.

Dagozkion argitalpenak, 2025eko maiatzaren 28ko 99 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialeko alean eta Udaleko iragarki oholean egin ondoren, erreklamazioak, eragozpenak eta oharpenak jaso ez direla kontuan harturik, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

1) 2024ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra onartzea.

2) Espedientearen kopia bat, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Euskadiko Kontu Epaitegiari bidaltzea.

7.- 2/2025 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA, HALA BADAGOKIO.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau, ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

SINA9103af19-2260-4052-a9d8-3eb0421989bd

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.471.01.335.00 2025	HITZA	4.700,00	64,78	4.764,78
1 0000.422.01.414.00 2025	MANTENUA GOIMEN	6.300,00	48,03	6.348,03
1 0000.211.01.342.20 2025	MANTENUA. IGERILEKUA	10.000,00	25.400,00	35.400,00
1 0000.471.01.430.00 2025	GOIERRI - GOIEKI	31.000,00	830,00	31.830,00
1 0000.470.01.335.00 2025	UEMA EKARPENA	3.800,00	3.843,95	7.643,95
1 0000.622.01.323.10 2025	INBERTSIOAK AITXURI HERRI ESKOLAN	10.000,00	8.464,60	18.464,60
1 0000.622.01.920.00 2025	INBERTSIOAK UDAL ERAIKINETAN	0,00	14.000,00	14.000,00
GUZTIRA		65.800,00	52.651,36	118.451,36

FINANTZAKETA

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.01.000.00 2025	REMANENTE TESORERIA CREDITOS ADICIONALES	52.651,36
FINANTZAKETA GUZTIRA			**52.651,36**

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

8.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

SINA9103af19-2260-4052-a9d8-3eb0421989bd

- 23/0625, ekainaren 5ekoa, eraikinaren teilatuaren arriskua kentzeari buruzkoa. Hirigintzan adostu da txosten bat eskatuko dela arriskua kendu dela ziurtatzeko.
- 24/0625, ekainaren 10ekoa, obra txikiko hirigintza-baimena emateari buruzkoa.
- 25/0625, ekainaren 10ekoa, obra txikiko hirigintza-baimena ukatzeari buruzkoa.
- 26/0625, ekainaren 10ekoa, obra txikiko hirigintza-baimena emateari buruzkoa.
- 27/0625, ekainaren 10ekoa, obra txikiko hirigintza-baimena emateari buruzkoa.
- 28/0625, ekainaren 10ekoa, obra txikiko hirigintza-baimena emateari buruzkoa.
- 29/0625, ekainaren 10ekoa, obra txikiko hirigintza-baimena emateari buruzkoa.
- 30/0625, ekainaren 11koa, eskolako gimnasioa gaua pasatzeko erabiltzeari buruzkoa.
- 31/0625, ekainaren 11koa, eskolako gimnasioa gaua pasatzeko erabiltzeari buruzkoa.
- 32/0625, ekainaren 11koa, Kontratazio Zentraleko telefono komunikazioen kontrataziora atxikitzeari buruzkoa.
- 33/0625, ekainaren 13koa, energia-eraginkortasuna hobetzeko Udaletxeko manpara itxitura jartzeko obra esleitzeari buruzkoa.
- 34/0625, ekainaren 16koa, 9/2025 zenbakidun fakturen erlazioa (Ekaina-2) onartzeari buruzkoa.
- 35/0625, ekainaren 17koa, aurreko ekitaldietako datozen zenbait zordun eta hartzekodunen bajak gauzatzeari buruzkoa.
- 36/0625, ekainaren 25ekoa, Olaberri eta Olaran auzoetako Jai Batzordeei laguntza emateari buruzkoa.
- 37/0625, ekainaren 27koa, Udalbatzarrerako deialdia egiteari buruzkoa.

9.- GALDE ERANTZUNAK.

Alkateak galdetzen du ea galde erantzunik ba ote dagoen.

Izaskun Igoak igerilekuko garbitasunaren inguruan galdetzen du. Zakarrontziak jarriko direla azaltzen da. Sorosleari euskaraz aritzea eskatzerik ba ote dagoen galdetzen du. Pleguetan jasota dago herritarrekin euskaraz aritzeko betebeharra.

Murgizelain argirik ez zegoela eta, Iberdrolak oharra bidali du abisatzeko jada martxan dagoela. Sabotaiaren bat izan omen zen argindar-etenaren erantzule.

San Martin kaleko pibote eta kameren kontua nola dagoen galdetzen du Izaskun Igoa zinegotziak. Iker Zubeldia Alkateak azaltzen du torlojuak egokitu behar direla eta pistoia eskuratuta dagoela. Beraz, datozen egunetan jarriko da martxan.

Ostatuaren inguruan galdetzen du Izaskun Igoak. Iker Zubeldiak egoeraren berri ematen du.

Festen inguruan galdetzen da. Abuztuaren 22tik 26ra izango direla azaltzen da. Alkateak azaltzen du bi egunetan izango dela sokamuturra aurtengoan.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko arratsaldeko zazpiak sei

SINA9103af19-2260-4052-a9d8-3eb0421989bd

gutxi direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, ... orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan ..... zenbakitik ..... zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, ... zenbakitik ..... zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2025eko .....k .....

O.E./ VºBº
ALKATEAK/ EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene ..... folios, numerados del ..... al ..... en número de papel timbrado y del ..... al ..... en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a ..... de ..... de 2025.

IDAZKARIAK/ LA SECRETARIA

EKS | CSV: SINA9103af19-2260-4052-a9d8-3eb0421989bd

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=02510
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=02510

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	Udalbatzarreko akta 2025_07_01
CSV/EKS:	SINA9103af19-2260-4052-a9d8-3eb0421989bd

Sinatzailea 1 / Firmante 1: IKER ZUBELDIA CATARAIN - 72478431A
Data / Fecha: 2025/07/08 09:00:58

Sinatzailea 2 / Firmante 2: EZTIZEN AGIRRESAROBE PINEDA - 72528573M
Data / Fecha: 2025/07/08 23:11:52